

Uniformidadearen kontra, Martin Ugalde

[*Bihotza golkoan*, 1990]

Josu Landa

Argia, 1.299. zk., 1990-07-08: 63.

Ezusteko bat baino gehiago ematekoa da "Bihotza golkoan" ipuin-bilduma. Bere narrazioek ez dute antzekorik euskal literaturan. Guztiz desberdina da ingurukotik, bestelako balorazioetan oraingoz sartu gabe. Ipuinok irakurtzeak sortzen duen orijinaltasun kutsuari gerora arrazoiak aurkitzea ez da zaila. Batetik, belaunaldi arrazoa, narraziogintza aktiboan adin inguru horretako azken mohikanoa delako egilea. Bestetik, heziketa arrazoa, Venezuelan hainbeste urte ez bait zituen alferrik pasa, bertan egindako literatura joria barne. Azkenik, izaera arrazoa, Martin Ugalde beti izan bait da mementuan mementuko pertsona, zaharkituak gelditutako moldeak modu moderno batez gainditzeko gauza izan dena. Baina ez da aski pertsonari buruzko oharrak egitea; liburuari berari ere begiratu beharko zaio.

Irakurlea ezustean harrapatzea maite du Martinek. Batzutan umore bidez lortzen du ("Giltza", "Izua", "Lapurreta"). Bestetan, pertsonaien ezusteko jokaeren bidez ("Ilunbe handiko...", "Gerrateko lehen kontaktua", "Arkume laurden baten prezioa"). Batzutan, hasieratik mozorrorik gabe aurkezten ditu pertsonaiak; bestetan, ekinbideak emango digu protagonistak ezagutzeko parada. Horixe bait da bederatzi ipuinen ezaugarriarik aipagarriena: nahi den efektoa lortzeko erabili behar den edozein errekurtso prejuiziorik gabe erabiltzea. Ipuinean ipuineko efektoa lortzea da inporta dena, eta zinez lortu egiten du. Gogoeta jarria edo elkar hizketa, kontakizun zuzena edo imajinarioa... zernahi erabiltzen du Martin Ugaldek, batere koerentziarik falta gabe gainera.

Hizkuntza ere oso berezia da Ugalderena. Lanketa handia somatzen zaio, eta oso modu pertsonalean isurtzen du kondakizuna. Sintaxi sinplea maite du, baina aldi berean luzeak diren esaldietan zehar ongi ausnartutako hitz kateak aukeratzen ditu. Adierazgarritasuna, ahozko hizketak moduan bilatzen du, erasketa erretoriko ugariekin, onomatopeia etengabeekin, hizketaldi puska pilatuekin...

Eguneroko kontuak eta urtetan pilatutako esperientziaren isladak agertzen dizkigute ipuinek. Eguneroko heroe txikiak agertzen zaizkigu, soiltasun haundiz, txiferorik gabe baina emozio handiak sortaraziz.